



LIGA DE EMPRESAS DE PELOTA A MANO ESKU PILOTA ENPRESEN LIGA

APUSTU SISTEMAREKIN LOTUTAKO KONTUAK

Esku-pilotan oinarritzen den apustua frontoiaren barruan egingo da.

“Trabesak” deitutakoak edo ikusle batek beste baten kontra egiten dituen apustuak pilotari edo pilotari bikote baten alde, apustu bitartekariaren bidez burutuko dira. Hauek apustulariek aurretik egindako eskaintzak jasoko dituzte.

Apustuen sedea partidak nork irabaziko duen asmatzea da.

Apustulariak jokalaria edo jokalaria bikote bati dagokion kolorea aukeratuko du. Ondoren, apustu bitartekariari apustu egin nahi duen kopurua adieraziko dio, eta honek eskaintza hau beste apustulari bati luzatuko dio.

Apustua onartua izan ezker, apustu bitartekariak apostutako kopurua idatziko du, eta apustulariei zein koloreen alde apustu egin duten justifikatzen duen papeleta emango die. Papertxo honetan trabesaren “momioa” agertuko da. Apustu bitartekariak trabesaren matriza gordeko du azken agiri moduan.

Partida bukatu ostean, irabazitako kolorearen alde apustu egin duen apustulariak galtzailearekin apostatutako kopurua kobratuko du, kopuru honi “korretajea” edo bitartekaritza portzentaia kenduko zaio, %16 hain zuzen ere.

Partidaren etena:

Partidan zehar hau etenduko balitz pilotari baten lesioarengatik edo ezinbesteko arazoren batengatik, apustuen likidazioa ondorengo moduan egingo da:

- a) Markagailuan aurretik doan pilotaria, edo pilotari bikotea, etena gertatutako unean joko da irabazle moduan.
- b) Apustuen likidazioaren portzentaia markagailuaren egoeraren arabera finkatuko da; eta beti ere araudi honetan ezarritako erregelari jarraituz.

Partida baten apustuen etentea:

Txapelketa eta torneoetako partidetan, ezohizko moduan, apustuak eten daitezke eta partida jarraitu pilotariaren erabakiz, bere kirol eskubidea defendatzeko, nahiz eta hau modu argian lesionatuta egon.

Apustuen etena dekretatu ahal izateko ondorengo baldintzak eman beharko dira:

- a) Lesioa partidan zehar gertatu behar da. Eskuen mina ez da lesio moduan onartuko eta ez da partida edo apustuak etenteko motibo nahikorik izango.
- b) Medikuak azaldu beharko dio antolatzaileei lesioaren larritasuna zenbaterainokoa den, eta honek partidaren garapen normalan izan dezakeen eragina.

Aurreko informazioa aztertuta antolatzaileetako arduradunak erabakiko du apustuak eten behar diren. Era berean, ezinbesteko gertaeraren bat suertatu ezker apustuen etena dekretatu daiteke baita.

Apustuak eten ezker, irabazle moduan kontsideratuko zaio –likidazioaren portzentaia ezartzeko apustuak etendutako momentuan markagailuan aurretik zihon pilotari edo pilotari bikoteari.

Likidazioaren Portzentaia Kalkulua:

Likidazioaren portzentaia ondoko araua aplikatuz lortuko da:

Haseran irabazle eta galtzailearen arteko tantuen aldea ehungaitik biderkatuko da. Ondoren, 22ri galtzaileak partida etendutako unean zeuzkan tantuak kenduko zaizkio. Bukatzeko, hasierako kopurua azken kenketa honetan lortutako emaitzarekin zatituko da.

$$\text{Likidazio portzentaia} = \frac{(It - Gt) \times 100}{22 - Gt}$$

Etenaren agertzea:

Partida edo apustuen etena ikusleei magafonia edo kartel baten bitartez adieraziko zaie.